BETERRI BURUNTZA

**Baldintza Teknikoen Plegua** **Pliego de Condiciones Técnicas**

**Beterri-Buruntza eskualdeko (Hernani, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Usurbil eta Urnieta) industrialdeetako**

Contratación de un servicio de consultoría de apoyo a la TRANSICIÓN ENERGÉTICA 2025 para el análisis de los potenciales renovables de los polígonos industriales de la comarca de Beterri-Buruntza (Hernani, Lasarte-Oria, Andoain, Astigarraga, Usurbil y Urnieta).

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Kontratu mota** Tipo de contrato | **Zerbitzuak** / Servicios | **Prozedura** Procedimiento | **Irekia** / Abierto | **Esp. Kodea** Código Exp. | **2026AKN20002** |
| **Lizitazio elektronikoa** Licitación electrónica | ☒ **Bai** / Sí ☐ **Ez** / No | **Tramitazioa** Tramitación | ☒ **Ohikoa** / Ordinaria ☐ **Premiazkoa** / Urgente | | |

# BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEAREN TRANTSIZIO ENERGETIKOAREN PROGRAMAN AHOLKULARITZA ZERBITZUA KONTRATZEKO

# PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE CONSULTORÍA EN EL PROGRAMA DE TRANSICIÓN ENERGÉTICA DE LA MANCOMUNIDAD DE BETERRI-BURUNTZA

## 1. AURREKARIAK

Beterri-Buruntza Mankomunitateak, bere eskumenen eta jarduera-ildo estrategikoen esparruan, eskualdeko trantsizio energetikoa eta deskarbonizazioa sustatzen ditu, bereziki jarduera ekonomikoaren eta industria-sektorearen eremuan.

Testuinguru horretan, Mankomunitateak industria-poligonoetako energia berriztagarrien potentzialaren azterketa egin du, eskualdeko sei udalerrietan (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) kokatutako industrialdeetan energia berriztagarriak ezartzeko aukerak identifikatzeko helburuarekin.

## 1. ANTECEDENTES

La Mancomunidad de Beterri-Buruntza, en el marco de sus competencias y líneas estratégicas de actuación, promueve la transición energética y la descarbonización del territorio, especialmente en el ámbito de la actividad económica y el sector industrial.

En este contexto, la Mancomunidad ha realizado un análisis del potencial de las energías renovables en los polígonos industriales, con el objetivo de identificar las posibilidades de implantación de dichas fuentes en los polígonos industriales ubicados en los seis municipios de la comarca: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta y Usurbil.



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

Egindako azterketak erakutsi du industria-poligonoetan autokontsumo fotovoltaikorako eta energia partekaturako potentzial esanguratsua dagoela, bai estalkietan erabilgarri dagoen azaleragatik, bai kontsumo elektrikoaren ezaugarriengatik. Hala ere, halako proiektuak garatu aurretik, beharrezkoa da enpresa interesdunen masa kritikoa aktibatzea, hau da, nahikoa enpresa, eragile ekonomiko eta sozialek interesa eta konpromisoa adieraztea, proiektuen bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta soziala bermatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Energia Jasangarriaren arloan eta Energia Bulegoaren bidez, trantsizio energetikoa sustatzeko tokiko dinamizazio-, sentsibilizazio- eta aholkularitza-prozesuen garrantzia azpimarratzen du, eragileen arteko lankidetzan eta parte-hartze aktiboan oinarrituta. Ikuspegi horrekin bat eginez, Beterri-Buruntza Mankomunitateak industria-poligonoetan dinamizazio-prozesu egituratuak abiatzea aurreikusten du, energia berriztagarrien erabilera sustatzeko eta etorkizuneko inbertsioak prestatzeko.

Horrenbestez, plegu tekniko hauen bidez industrialdeetan berriztagarrien sustapenerako dinamizazio-prozesuak kontratatzeko baldintzak ezartzen dira, aurrez egindako potentzial-azterketaren emaitzetatik abiatuta.

El análisis realizado ha demostrado que en los polígonos industriales existe un potencial significativo para el autoconsumo fotovoltaico y la energía compartida, tanto por la superficie disponible en las cubiertas como por las características del consumo eléctrico. Sin embargo, antes de desarrollar este tipo de proyectos, es necesario activar una masa crítica de empresas interesadas, es decir, suficientes empresas, agentes económicos y sociales que muestren interés y compromiso para garantizar la viabilidad técnica, económica y social de los proyectos.

La Diputación Foral de Gipuzkoa, en el área de Energía Sostenible y a través de la Oficina de Energía, incide en la importancia de los procesos de dinamización, sensibilización y asesoramiento local para promover la transición energética, basados en la colaboración y participación activa entre agentes. Coincidiendo con esta visión, la Mancomunidad Beterri-Buruntza prevé iniciar procesos estructurados de dinamización en polígonos industriales para fomentar el uso de energías renovables y preparar futuras inversiones.

Por tanto, mediante estos pliegos técnicos se establecen las condiciones para la contratación de procesos de dinamización para la promoción de renovables en polígonos industriales, a



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

2. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Beterri-Buruntza Mankomunitateko sei udalerrietako industrialdeetan energia berriztagarrien erabilera sustatzeko dinamizazio-prozesuak diseinatu eta gauzatzea, metodologia parte-hartzailean oinarrituta.

Zehazki, kontratuaren bidez honako helburu hauek lortu nahi dira:

- Industria-poligono bakoitzean enpresa interesdunen masa kritikoa identifikatzea eta aktibatzea, etorkizuneko autokontsumo partekatuko edo komunitate energetiko industrialetako proiektuak ahalbidetzeko.
- Enpresen beharrak, lehentasunak eta interes-maila identifikatzea.
- Energia berriztagarrien aukeren inguruan informazio argia, ulergarria eta eguneratua eskaintzea.
- Etorkizunean instalazio berriztagarriak egikaritzeko oinarri sozial, antolatzaile eta estrategikoa prestatzea.

Kontratuaren barruan, gutxienez udalerri bakoitzeko industrialde batean lanketa bana egingo da, guztira sei (6) dinamizazio-prozesu gauzatuz. Horrez partir de los resultados del análisis de potencial realizado previamente.

2. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del presente contrato es el diseño y ejecución de los procesos de dinamización para el fomento del uso de energías renovables en los polígonos industriales de los seis municipios de la Mancomunidad de Beterri-Buruntza, en base a una metodología participativa. En concreto, mediante el contrato se quieren conseguir los siguientes objetivos:

- Identificar y activar la masa crítica de las empresas interesadas en cada polígono industrial para posibilitar futuros proyectos de autoconsumo compartido o de comunidades energéticas industriales.
- Identificar las necesidades, prioridades, y el nivel de interés de las empresas.
- Ofrecer información clara, comprensible y actualizada sobre las posibilidades de las energías renovables.
- Elaborar una base social, organizativa y estratégica para la futura ejecución de instalaciones renovables.

Dentro del contrato se realizará al menos un trabajo en un polígono industrial de cada municipio, realizando un total de



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

gain, industrialde bakoitzean gutxienez 5 enpresekin egingo da lanketa.

3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA BALDINTZA OROKORRAK

3.1. ZERBITZUAREN IZAERA

Kontratuaren xede den zerbitzua dinamizazio, sentsibilizazio eta aktibazio sozialeko zerbitzua da, eta ez du barne hartzen instalazio teknikoen diseinu exekutiboa edo obren gauzatzea.

Zerbitzua Gipuzkoako Foru Aldundiak Energia Bulegoaren bidez sustatzen duen ikuspegiarekin bat etorriz garatuko da, hau da, tokiko eragileen inplikazioa, parte-hartze aktiboa eta epe luzerako jasangarritasuna ardatz hartuta.

3.2. METODOLOGIA

Dinamizazio-prozesuak metodologia parte-hartzaile, egituratu eta progresiboan oinarrituko dira, helburu nagusi gisa industria-poligono bakoitzean enpresa-sare baten edo komunitate baten inplikazioa lortzea izanik.

Metodologiak honako elementu hauek jaso beharko ditu, gutxienez:

- Enpresa eta eragile interesdunen identifikazioa eta karakterizazioa.
- Parte-hartzaileen beharren eta lehentasunen diagnostikoa.
- Energia berriztagarrien aukerei buruzko informazio eta sentsibilizazio jarduerak.
- Hausnarketa kolektiborako eta erabakiak partekatzeko espazio

seis (6) procesos de dinamización. Además, en cada polígono se trabajará con un mínimo de 5 empresas.

3. DESCRIPCIÓN GENERAL DEL SERVICIO Y CONDICIONES GENERALES

3.1. NATURALEZA DEL SERVICIO

El servicio objeto del contrato es un servicio de dinamización, sensibilización y activación social, que no incluye el diseño ejecutivo de las instalaciones técnicas o la ejecución de las obras.

El servicio se desarrollará de acuerdo con el enfoque que promueve la Diputación Foral de Gipuzkoa a través de la Oficina de Energía, es decir, centrado en la implicación de los agentes locales, la participación activa y la sostenibilidad a largo plazo.

3.2. METODOLOGÍA

Los procesos de dinamización se basarán en una metodología participativa, estructurada y progresiva, cuyo objetivo principal es conseguir la implicación de un tejido empresarial o de una comunidad en cada polígono industrial.

La metodología deberá incluir, al menos, los siguientes elementos:

- Identificación y caracterización de empresas y agentes interesados.
- Diagnóstico de necesidades y prioridades de las personas participantes.



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

egituratuak. Espazio horiei dagokionez, behar izanez gero, Mankomunitateak eskuragarri dituenak erabili daitezke.

3.3. JARDUERAK

Lizitatzaileak proposatutako lan-planak, gutxienez, jarduera hauek jaso beharko ditu dinamizazio-prozesu bakoitzerako.

- Informazio- eta sentsibilizazio-saioak, industrian berriztagarrien aplikazioak eta aukerak azaltzeko.
- Lan-saio edo mahai-inguru parte-hartzaileak, enpresen interesak eta aukerak modu kolektiboan aztertzeko.
- Banakako bilerak, interesa edo inplikazio-maila handiagoa duten enpresekin edo eragile estrategikoekin.
- Inkestak edo kontsulta-tresnak, interes-maila, konpromiso-maila eta proiektuaren bideragarritasuna neurtzeko.

Jarduerak industria poligono bakoitzaren ezaugarrietara egokituko dira, eta lizitatzaileak egokitzapen hori justifikatu beharko du bere proposamenean.

3.4. EMAITZAK ETA ENTREGAGAIAK

Honako emaitza eta entregagaiak lortu beharko dira, gutxienez:

- Industrialde bakoitzeko dinamizazio prozesuen memoria.
- Parte hartu duten enpresen eta eragileen zerrenda, egoeraren

- Actividades de información y sensibilización sobre las posibilidades de las energías renovables.
- Espacios estructurados de reflexión colectiva y de intercambio de decisiones. Respecto a estos espacios, en caso de necesidad, se pueden utilizar los disponibles por la Mancomunidad.

3.3. ACTIVIDADES

El plan de trabajo propuesto por el licitador deberá contener, al menos, las siguientes actuaciones para cada proceso de dinamización.

- Sesiones informativas y de sensibilización sobre las aplicaciones y oportunidades de las renovables en la industria.
- Sesiones de trabajo o mesas redondas participativas para analizar colectivamente los intereses y oportunidades de las empresas.
- Reuniones individuales con empresas o agentes estratégicos con mayor interés o grado de implicación.
- Encuestas o instrumentos de consulta para medir el nivel de interés, el grado de compromiso y la viabilidad del proyecto.

Las actividades se ajustarán a las características de cada polígono industrial, debiendo el licitador justificar dicha adecuación en su proposición.



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

azalpena eta interes mailaren laburpena.

- Autokontsumo partekatuko edo komunitate energetiko industrialeko aukeren identifikazioa.
- Etorkizuneko faseetan garatu daitezkeen proiektuentzako oinarri eta gomendio nagusiak.

3.5. KOORDINAZIOA, JARRAIPENA ETA KALITATEA

Zerbitzua Beterri-Buruntza Mankomunitatearekin etengabeko koordinazioan garatuko da. Kontratudunak aldizkako jarraipen-bileretan parte hartu beharko du, lanen egoeraren berri emateko eta beharrezko doikuntzak adosteko.

Kontratudunak bermatu beharko du zerbitzuaren kalitate teknikoa, gardentasuna eta neutraltasuna, eta jarduera guztietan administrazio publikoan ohikoak diren objektibotasun-, berdintasun- eta parte-hartze-printzipioak errespetatuko dira.

3.6. PROGRAMAREN ZURIKETA:

Azken justifikazioa egiteko, enpresa esleituak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Memoria tekniko bat, aurreko faseetan deskribatu dena jasoko duena, elebitan.
- Memoria teknikoaren laburpen exekutiboa.

3.4. RESULTADOS Y ENTREGABLES

Se deberán obtener, al menos, los siguientes resultados y entregables:

- Memoria de los procesos de dinamización de cada polígono.
- Relación de empresas y agentes participantes, descripción de la situación y resumen del grado de interés.
- Identificación de alternativas de autoconsumo compartido o comunidad energética industrial.
- Recomendaciones principales para los proyectos que se puedan desarrollar en fases futuras.

3.5. COORDINACIÓN, SEGUIMIENTO Y CALIDAD

El servicio se desarrollará en coordinación permanente con la Mancomunidad Beterri-Buruntza. El contratado deberá participar en reuniones periódicas de seguimiento para informar del estado de los trabajos y acordar los ajustes necesarios.
El contratista deberá garantizar la calidad técnica del servicio, la transparencia y la neutralidad, respetando los principios de objetividad, igualdad y participación habituales en todas las actividades de la Administración Pública.

3.6. JUSTIFICACIÓN PROGRAMA:



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

- Laburpen ez tekniko bat (20 orri gehienez), garatu diren lanak, lortutako emaitzak eta etorkizunerako proiektuetara begira hobetzeko iradokizunak jasoko dituena.

Para la justificación final, la empresa adjudicataria deberá presentar la siguiente documentación:

- Una memoria técnica que recoja lo descrito en las fases anteriores, en bilingüe.
- Un resumen ejecutivo de la memoria técnica.
- Un resumen no técnico (máximo 20 páginas) en el que se recojan los trabajos desarrollados, los resultados obtenidos, y las sugerencias de mejora de cara a futuros proyectos.

## 4. LAN HARREMANA BAZTERTZEA

Zerbitzu profesionala emango da enpresa adjudikaziodunaren langileekin edo adjudikaziodunarekin berarekin (pertsona fisikoa den kasuan) inola ere lan harremanik ezarri gabe.

Aurrekoa eragotzi gabe, eta kontratatutako zerbitzua behar bezala gauzatzen ari dela ziurtatzeko, Beterri-Buruntza Mankomunitateak burutu diren zerbitzuen jarraipena egingo du eta zerbitzuak garatzeko jarraibideak ezarriko ditu.

## 4. EXCLUSIÓN DE LA RELACIÓN LABORAL

La prestación del servicio profesional se realizará sin establecer en ningún caso relación laboral con el personal de la empresa adjudicataria o con la propia adjudicataria (en el caso de ser persona física).

Sin perjuicio de lo anterior, y con el fin de asegurar la correcta ejecución del servicio contratado, la Mancomunidad de Beterri-Buruntza realizará el seguimiento de los servicios ejecutados y establecerá las instrucciones para su desarrollo.

## 5. KONTRATUAREN OBJEKTUA ENTREGATZEKO BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak egin beharreko lanen jarraipenerako sistema bat, metodologia, aldizkakotasuna eta

## 5. CONDICIONES DE ENTREGA DEL OBJETO DEL CONTRATO

Proponer un sistema, metodología, periodicidad y composición de las personas para el seguimiento de los



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus

pertsonen osaera proposatzea, bai eta baldintza hauek beteko dituzten komunikazio sistema iraunkorrak ere:

- Kalitatea: Entregatu beharreko materialen kalitate maila ziurtatzea.
- Irismena: Sortutako itxaropenak betetzea.
- Epeak: Aurreikusitako entrega epeak betetzea.
- Kostua: Aurreikusitako kostuen desbideratzeak saihestea.

trabajos a realizar por la empresa adjudicataria, así como cumplir los siguientes requisitos sus sistemas de comunicación permanentes:

- Calidad: Asegurar el nivel de calidad de los materiales a entregar.
- Alcance: Cumplimiento de las expectativas generadas.
- Plazos: Cumplimiento de plazos de entrega previstos.
- Coste: Evitar desviaciones de los costes previstos.

## 6. PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA

Proiektu honetan, jarraian adierazten diren jarraipen-mekanismoak jasotzen dira, eta enpresa esleipenduneko proiektuaren arduradun izendatutako pertsona izango da hura gauzatzearen arduraduna:

- Beterri-Buruntza Mankomunitatearekin solasaldia.
- Aldaketen eta arazoen komunikazioa.
- Arriskuen kudeaketa.
- Interesen eta lantaldeen koordinazioa.
- Planaren eta baliabideen kudeaketa.
- Proiektuaren dokumentazioaren kalitatea eta egitura.

## 6. PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN

En este proyecto se recogen los siguientes mecanismos de seguimiento, siendo la persona designada como responsable del proyecto de la empresa adjudicataria la responsable de su ejecución:

- Interlocución con la Mancomunidad de Beterri-Buruntza.
- Comunicación de cambios y problemas.
- Gestión de riesgos.
- Coordinación de intereses y equipos de trabajo.
- Gestión del plan y de los recursos.
- Estructura y calidad de la documentación del proyecto.

JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Firmado digitalmente por JULEN MUNGIA GORROTXATEGI - 72546623T
Fecha: 2026.01.30 16:52:32 +01'00'



Akarregi poligonoa 10, 203-204 bulegoak • 20120 HERNANI • IFZ Q2000624C • Tf: 688761195 •
administrazioa@beterriburuntza.eus